



## Zurriolako Ataria

37. alea

2018-10-31

### Euskaraldia: izena emateko mahaiak

Soroan azaroaren 6 eta 8an eta Ategorrietan azaroaren 13 eta 15ean, EUSKARALDIAn izena eman eta informazioa jasotzeko aukera duzue. Bestela ere, internetez eman dezakezue izena [bertan](#).



### Ikasle Laguntzaile proiektua gurasoentzat

LH5 eta DBH3ko gurasoek aukera duzue Hurren azaroaren 7an 17:15ean egingo den bizikidetzaren proiektu honi buruzko informazio saioan parte hartzeko. Izena emateko [bertan](#).



### LH3koak Donostian

Hirugarren mailako ikastolaren inguruak ezagutzen ibili ziren ostegunean! Eguna hasteko, Kristina Eneako parkera joan ziren. Ondoren, Tabakalera ezagutzeko aukera izan zuten.





### Zinetek batxilergoan

Orona fundazioak aurten ere Zinetek zine-foruma antolatu du. Bertan, hilabetero, gizarte gaiak lantzen dituen filma bat proiektatzen da eta ondoren solasaldi baten bidez pelikulako gaiak aztertzen eta lantzen dira.



### MTB irteera

Bagenekien eguraldi txarra bazetorrela eta aurreko egunak topera aprobetxatze arren, Kiroletako ziklokoak ostegunean Andoaindik Leitzara joan ziren Leitzarango bailaratik, Gipuzkoako kotxe gabeko bailara bakarrean barrena.



#### DUELA 50 URTE...

- Larrukert eta Basterretxearen "Ama Lur" filma estreinatu zen.
- Stanley Kubrick-en "2001: A Space Odyssey" filma estreinatu zen.

### OHARRAK / AGENDA:

- **LH3A:** Ubik. Goiz Pasa. Azaroak 6.
- **LH3B:** Ubik. Goiz Pasa. Azaroak 8.
- **LH6:** Flyschera bisita. Zumaia. Egun pasa. Azaroak 7.
- **Eskola Kirola:** Asteburu honetan jardunaldirik **ez**.
- **Jangela:** Azaroko [menua](#).
- **Zurrimendi:** Azaroko [irteera](#). 18-19 ikasturteko irteerak.
- **Groseko Hautxokoa & Gaztelekua:** Azaroko [programazioa](#).

**EUSKARALDIA**  
11 EGUN EUSKARAZ  
2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra

